

ERREMINTA - GIDA

TOKI-ADMINISTRAZIOENTZAKO
LAGUNTZA ENERGIA ETA KLIMAREN
ARLOKO TRANTSIZIORAKO



EUSKADIKO ITUN BERDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



**ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA**
**ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA**





HARREMANETARAKO:

udalsarea2030@ihobe.eus

sostadm@eve.eus

EDUKIEN AURKIBIDEA

04	1. ERREMINTA-GIDAREN AURKEZPENA
05	• Helburuak
05	• Basque Green Deal
06	• Toki-administrazioentzako laguntza
07	2. EUSKARRI TEKNIKOA
07	• Aholkularitza klimari eta energiari buruzko toki-planetan
08	• Aholkularitza Alkateen Klima eta Energia Itunean
08	• Udalsarea 2030
12	• Klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko tresnak
12	• Aholkularitza komunitate energetikoetan
13	• Aholkularitza erosketa eta kontratazio publiko berdean
13	• Lankidetzeta Europako proiektuetan (Life, Horizon Europe)
14	• Sorkuntza berriztagarriko proiektu bereziak
15	3. GAITASUNAK SORTZEA
15	• Laguntzeko teknikariak biltzea Lanbide 2022 programaren bidez
16	• Udalsarea 2030eko jardueretan eta lan-taldeetan parte hartzea
16	• Gaikuntzak eta mintegiak teknikarientzat
17	4. LAGUNTZA-PROGRAMAK
17	• MOVES III Programa 2021-2023
17	• Energia-iturri berriztagarrien bidezko autokontsumorako eta biltegitratzerako laguntzak
18	• Energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarrien programa
18	• PREE 5000, erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako energia-birgaitzeko laguntzak
19	• GAUZATU Energia
19	• Euskadiko toki-administrazio publikoaren energia-jasangarritasunerako azterlanak eta auditoretzak egiteko laguntza-programa
20	• Toki-garapen jasangarriko laguntza-programa
20	• Toki-ekoberrikuntzari laguntzeko programa
21	• ASTEKLIMA laguntza-programa
22	5. PROIEKZIOA
22	• Jardunbide egokien zabalkundea
23	• Aitortza publikoa
23	• Aste klima



ERREMINTA-GIDAREN AURKEZPENA

Euskadik bere ibilbide-orria garatzen du Europako zuzen-tarauetan oinarrituriko etorkizun jasangarriagoa lortzeko. **Euskadiko Itun Berdea** industria eta teknologia palanka nagusizat dituen eredu ekonomikoa da eta, beraz, zientzia, teknologia, ekonomia zirkularra, industria, energia-trantsizioa eta elikakatea bera helburu berarekin bat datoz: bidezko garapen jasangarriarekin.

Eusko Jaurlaritzak guztien onaren alde egiten du etorkizunerako ezarritako helburuak betetzeko. Auzolanak, zereginak eta baliabideak partekatzean oinarrituta dagoenez, banaka ezinezkoak izango ziren jomugak lortzea ahalbidetu du. Eusko Jaurlaritzak prestatu duen gida honetan laguntza-lerroak jasotzen dira, toki-administrazioek energia eta klimaren arloko euskal trantsizioan urrats berriak egiteko eskura dituzten tresnak.

Energia eta klimaren arloko trantsizioan laguntzeko zerbitzu-gutun honi esker, udalek, kuadrillek, mankomunitateek eta landa-garapeneko erakundeek

Euskadiko Itun Berdearekin bat egin ahaliko dute. Toki-administrazioek, enpresek, erakundeek eta herritarrek berek zeregin esanguratsua daukate berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko eta klima aldatetari egokitzeko helburuetan aurrera egiteko, mugikortasun-jarduketak gauzatzuz, ingurumena babestuz, 0 kilometroko produktuak kontsumituz eta energia berri-erreserbitagarria sortuz, eta erreminta-gida honen xedea ahalegin horretan laguntzeko elementua izatea da.

Gida honek energia eta klimaren arloko trantsizioan aurrera egiteko tresnak ematen dizkie toki-administrazio guztiei.

Jarduteko garaia heldu da!

1.1 HELBURUAK

Gida hau udalei, administrazio-batzarrei, mankomunitateei, kuadrillei, garapen-agentziei eta beste toki-erakunde batzuei zuzenduta dago eta helburu hauek dauzka:

1

Euskadiko toki-administrazioei energia eta klimaren arloko trantsizioarekin lotutako jardueretan laguntzeko proiektu bat diseinatzea, abiaraztea eta egikaritzea, gaitasunen sorketan, euskarri teknikoan, laguntzetan eta aitorpenean oinarrituta dagoena eta eremu horretan eskuragarri dauden baliabideen erabilera maximizatzen lagunduko duten tresnak eta zerbitzuak emango dituen.

2

Euskadiko udalerrri eta eskualdeetarako ibilbide-orri bat ezartzea, energia eta klimaren arloko politikak aplikatzea errazteko eta toki-erakundeek arlo horretan duten konpromisoa eta lidergoa agerian uzteko.

2022-2024rako helburu kuantitatiboak

Klimari eta energiari buruzko toki-plan onetsiak	40
Energia eta klimaren arloko trantsizioan lan egiteko gaitutako gazteak (Lanbideko programan parte hartzen dutenak)	30



Energia eta klimaren arloko toki-trantsiziorako ibilbide-orria



1.2 BASQUE GREEN DEAL

Europako Itun Berdeak¹ edo European Green Deal izenekoak klima-aldaketaren eta ingurumenaren degradazioaren mehatxua gainditzea du helburu. EB ekonomia moderno eta lehiakorra bihurtu nahi da, 2050erako klima-neutraltasuna eta baliabideen erabilerarekin lotuta ez dagoen hazkunde ekonomikoa bermatuz, ez pertsonarik ez lekurik atzean utzi gabe.

- Anbizio klimatikoa, isuriak murriztuz gauzatu beharreko proposamena.
- Energia garbia, segurua eta eskuragarria, ezinbesteko faktorea ekonomia deskarbonizatzeke.
- Ekonomia zirkularra, hondakinei baliabide-iturri gisa duten balioa emanaz.
- Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak itun horren izaera Euskadira ekarri nahi du, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eskutik, eta horretarako Basque Green Deal² plana sortu du. Euskadiko eragile nagusiek ekonomiaren eta ingurumenaren arloko ibilbide-orriaren ardatz nagusiei helduko diete, alegia:
- Energia-efizientzia eta eraikuntza jasangarria, enplegua sortzeko motorra.
- Mugikortasun jasangarria, gizartea lekualdatzen den modua eraldatzeko.
- Baserritik mahaira, jasangarritasuna elikakatearen ardatz egituratzaile gisa.



- Zero kutsadura, ingurune osasungarria lortzeko.

1. https://ec.europa.eu/info/strategy/priorities-2019-2024/european-green-deal_es
 2. <https://www.irekia.euskadi.eus/es/news/68912-basque-green-deal-modelo-vasco-para-desarrollo-economico-justo-sostenible>

1.3 EUSKAL TOKI-ADMINISTRAZIOENTZAKO LAGUNTZA

Tokiko Basque Green Deal ituna bideratzeko ildoak, toki-administrazioei energia eta klimaren arloko trantsizioan laguntzea xede dutenak, jardueren eta baliabideen 4 multzotan egituratzen dira:



2 EUSKARRI TEKNIKOA

Elkarlanaren eta sareko lanaren ondoriozko tresnen eta erreminten multzoa, udalerriei eta eskualdeei energia eta klimaren arloko trantsizioan euskarri teknikoak emateko balio duena.

2.1 AHOLKULARITZA KLIMARI ETA ENERGIARI BURUZKO TOKI-PLANETAN

Klimari eta energiari buruzko toki-plana epe luzeko toki-plangintzako tresna da, aldi berean klima-aldaketa arintzeko eta horretara egokitzeko ekintzari heltzen diona. Klimari eta energiari buruzko toki-planek EAEko udalek eta eskualdeek klimaren eta energiaren arloan egiten duten ekintzaren plangintzarako erreferentziako esparru-tresna propioa osatzen dute.

Horretarako, euskal udalerrietako eta euskal eskualdeetako testuingururako berriazko ikuspegia, metodologia eta tresnak xedatzen dituzte, klima-aldaketarekin eta energia-trantsizioarekin zerikusia duten erronkei aurre egiten lagunduko dietenak, indarreko eta etorkizuneko arau-esparruaren arabera.



INFORMAZIO GEHIAGO:

EUSKADIKO KLIMA ETA ENERGIARI BURUZKO TOKI-PLANEN GIDA

<http://www.udalsarea2030.eu/publicaciones/guia-para-elaboracion-planes-locales-clima-y-energia-euskadi-4>



2.2 AHOLKULARITZA ALKATEEN KLIMA ETA ENERGIA ITUNEAN

Alkateen Klima eta Energia Ituna hiriek klima eta energiaren arloko toki-ekintzaren alde darabilten munduko mugimendurik handiena da. Ekimenak 57 herrialdetako tokiko eta eskualdeko 7000 agintaritzak baino gehiago barne hartzen ditu eta denek energia eta klimaren arloko jasangarritasun-helburuekiko konpromisoa daukate.

Euskadin 25 udalerrri daude Alkateen Itunari

atxikita, eta beste batzuk atxikitzeke prozesuan daude. EEE eta lhobe lankidetzan aritzen dira Itunari atxikitako udalerriekin, euskarri tekniko eta metodologikoa emanez bai klima eta energiaren arloko ekintza-planak (KEEPak) zehazteko fasean bai klima-aldaketa arintzeko eta horretarako egokitzeko jarduketak abiaraztekoan.



INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://www.pactodelosalcaldes.eu/es/>

2.3 UDALSAREA 2030

Udalsarea 2030 udalerrri jasangarrien euskal sarea da. Toki-jasangarritasuna sustatzea du helburu eta Euskadiko administrazio publikoko maila guztien arteko koordinazioa sustatzen du —Eusko Jaurlaritzak, erakunde publikoak, foru-aldundiak, eskualdeko erakundeak eta udalerriak—. Bertan, udalerriek protagonismo berezia daukate.


Gainera, sarea osatzen duten toki-erakundeek jasangarritasunari buruzko politikak eta ekintza-planak dinamizatzeaz arduratzen da, betiere garapen jasangarrirako helburuekin (GJHeekin) bat etorritik. Euskadiko tokiko eta eskualdeko administrazio guztientzat zabalik dagoen sarea da, eta bete-kizun bakarra da udalerrien eta eskualdeen jasangarritasunean interesatuta egotea eta hori bultzatzeko konpromisoa edukitzea.



udalerrri jasangarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles

INFORMAZIO GEHIAGO:

<http://www.udalsarea2030.eus/servicios>



Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila da sarearen burua, lehen-dakaritzatik, lhobek gauzatutako idazkaritza teknikoak jarduera bultzatzen du eta

EEEk eta lhobek toki-administrazioari energia eta klimaren arloko trantsizioan laguntzeko tresna eta erreminten garapenean parte hartzen dute.

2.4

KLIMA-ALDAKETA ARINTZEKO ETA HORRETARA EGOKITZEKO TRESNAK³

3. <https://www.ihobe.eus/cambio-climatico#kit>

Ihobek klimaren arloko hainbat tresna eta zerbitzu ditu administrazio publikoei isuriak murrizten eta xurgapenak areagotzen (klima-aldaketa arintzen) laguntzeko, bai eta klima-aldaketak sortzen dituen inpaktuetara egokitzeko ere.


BEG-EN ISURIAK ETA KARBONO-AZTARNA KALKULATZEKO TRESNAK

Toki-erakundeen karbono-aztarna kalkulatzeko tresnek haien zerbitzu eta instalazioekin lotutako isuriak kalkulatzeko balio dute. Halaber, BEGen isuriak kalkulatzeko tresnak daude, udalerrien eta eskualdeen lurralde osorako, klima-aldaketari gehien eragiten dioten alderdietan politikak hobetzeko helburuarekin.


Ihobek, Udalsarea 2030eko idazkaritza tekniko gisa, zenbait iturritatik eskuratutako datuak ematen ditu tresnok betetzeko.

Sektorea / Sector	Emisioak / Emisiones (tCO ₂ e)	Emisioak / Emisiones (tCO ₂ e)	Emisioak / Emisiones (tCO ₂ e)	Emisioak / Emisiones (tCO ₂ e)
Garraioa / Transporte	108.917	66.096	1.545	136.558
Abeltzaintza / Ganadería	1.500	2.300	0	3.800
Bizitegiak / Vivienda	1.800	3.700	0	5.500
Zerbitzuak / Servicios	11.300	18.900	1.545	31.745
Industria / Industria	0	0	0	0
Hondakinak / Residuos	0	0	0	0
GUZTIRA / TOTAL	121.517	80.996	1.545	136.558


Udalerriko BEGen isuriak sektoreka



Udalerriko BEGen isuriak sektoreka (industriarik gabe)



Udalerriko BEGen isuriak sektoreka (industriarik eta lehen sektorerik gabe)



Garraioa
 Bizitegiak
 Zerbitzuak
 Hondakinak


Abeltzaintza
 Nekazaritza
 Industria

CO₂ XURGAPENEN KALKULAGAILUA:

Biomasarekin eta lurzoruekin lotutako karbono dioxidoaren xurgapenaren zenbatespena erraz estimatzen duen kudeaketa-tresna da eta, beraz, karbono-hustulekuen kudeaketa egokiagoa ahalbidetzen du.


KLIMA-AGERTOKIEN BISOREA

Bisoreak klima-aldaketaren agertokiak analisiari buruzko informazioa aurkezten du, etorkizuneko tenperaturaren, prezipitazioaren eta aldagai eratorrien bilakaera posiblea ezagutzeko.




UDALEK KLIMA-ALDAKETAREKIKO DUTEN KALTEBERATASUNAREN ETA ARRISKUAREN INDIZEAK

Toki-eremura bideratutako analisi-tresna da, bero-boladekin, ibaiekin eta itsasbazterreko uholdeekin eta lehen sektoreko lehorrekin lotutako klima-arriskuen ikuspegi bat edukitzea ahalbidetzen duena, hainbat agertoki eta epetarako. Zenbait ikuspegitatik analizatutako egokitze-neurriak eskaintzen ditu.



KOSTAEGOKI, KALTEBERATASUNA, ARRISKUA ETA EGOKITZAPENA EUSKADIKO KOSTALDEAN



Tresna honek itsas mailaren igoeragatiko eta olatuengatiko uholde-arriskua sakon analizatzea ahalbidetzen duen bisore bat dauka. Zenbait ikuspegitatik analizatutako egokitzeturriak eskaintzen ditu.



KLIMA-ALDAKETARA EGOKITZEKO «IRTENBIDE NATURALEN» GIDA ETA KATALOGOA

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-eremuan, gida honek sekuentzia metodologiko argia, koherentea eta errepikatzen erraza ematen die toki-administrazioei, naturan oinarritutako

irtenbideak (badaudenak eta sor daitezkeena) identifikatzea eta mapatzea ahalbidetzen diena, egokitzapenaren bidean orientatzeko.



INFORMAZIO GEHIAGO: <https://www.ihobe.eus/klima-aldaketa#tresnak>

2.5 AHOLKULARITZA KOMUNITATE ENERGETIKOETAN

Komunitate energetikoen helburua da sorkuntza-instalazio batzuei edo komunitate baten inguruneke beste proiektu batzuei elkarrekin onura ateratzea. Adibide bat autokontsumoa edo banatutako sorkuntza izan daitezke, faktore garrantzitsuak izan

baitaitezke familiek, bereziki kalteberenek, dirua aurrezteko.

Toki-administrazioak egoera ezin hobean daude beren udalerrietan komunitate energetikoak sustatzeko. Horri buruzko

informazio gehiago eskuratu nahi baduzu, Energiaren Euskal Erakundearekin jar zaitzke harremanetan eta aukeren eta egin beharreko urratsen berri emango dizu.

2.6 AHOLKULARITZA EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAN

Europako administrazio publiko guztiek erosketak eta kontratazio berde eta berritzaileko irizpideak txertatzea lagungarria da ekonomia lehiakorragoa eta ingurumenaren aldetik arduratsuagoa finkatzeko. Erosketak eta kontratazio publiko berdea toki-administrazioek klima eta energiaren arloko trantsizioan aurrera egiteko baliabideak dira.

Ihobek aholkularitza-zerbitzua eskaintzen die EAEko administrazio publikoei lizitazioetan ingurumen-klausulak nola sartu eta aurkeztutako eskaintzak nola baloratu azaltzeko.



2.7

LANKIDETZA EUROPAKO PROIEKTUETAN (LIFE, HORIZON EUROPE)

Ihobek eta EEEK esperientzia luzea daukate euskal udalekin Europako programen bidez (hala nola LIFE, Interreg eta Horizon Europe) finantzaturako proiektuetan lan egiten. Maila anitzeko gobernantza, eskualdeko eta tokiko administrazioen arteko lankidetzak, oinarritzak da zenbait arlotan lan-eredu berriak garatze edo esperimendatzeko aldera Europako finantzaketa eskuratzeko. Urban klima 2050, Atelier, Smartencity, Opengela, AGGREE eta Adapyr dira proiektuen adibideetako batzuk.

Ihobek eta EEEK euskal udalen eskura jartzen dituzte beren gaitasunak Europako programen bidez finantzaketa bilatzeko eta haien

lurraldeetan energia eta klimaren arloko ja-sangarritasuna bultzatuko duten azterketak edo tresna berriak garatzen laguntzeko.



INFORMAZIO GEHIAGO:

- www.urbanklima2050.eu
- <https://smartcity-atelier.eu/about/lighthouse-cities/bilbao/>
- <https://smartencity.eu/>
- <https://opengela.eus/>
- <https://agree-basquecountry.eu/en/>
- <https://www.opcc-ctp.org/eu/proyecto/opcc-adapyr>

2.8

SORKUNTZA BERRIZTAGARRIRAKO PROIEKTU BEREZIAK

Toki-administrazioek funtsezko zeregina daukate lurraldeko energia-trantsizioan eta baliabide berriztagarrien garapenean. EEEK aholkularitza-zerbitzua eskaintzen die baliabide eolikoak, minihidraulikoak edo

fotovoltaikoak aprobetxatzeko proiektu bereziak planteatzen dituzten toki-administrazioei, proiektua sortzen dutenetik abian jarri arte laguntzeko.

3 GAITASUNAK SORTZEA

Energia-trantsizioaren eta klima-aldaketaren erronkei aurre egiteko prest dagoen toki-administrazioa.

3.1 LAGUNTZEKO TEKNIKARIAK BILTZEA LANBIDE 2022 PROGRAMAREN BIDEZ

Ihobek, EEEK eta Lanbidek, Novia Salcedo fundazioarekin batera, gazteei toki-administrazio publikoan klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloko enplegua emateko programa abiarazi dute. Programak Europar Batasunaren Next Generation funtsen finantzaketa jasotzen du eta, Lehen Lan Esperientzia programaren bidez, Lanbidek sustatuta, gazteentzako lan-kontratuak eskaintzen ditu administrazio publikoetan.

Bi helburu dauzka:

- Toki-administrazioei haien behar zehatzetara egokitutako klimari eta energiari buruzko planak garatzeko laguntza eskaintzea, beren jarduketa-eremuetan ingurumen-jasangarritasuna hobetu dezaten.
- Talentu gazteei energia-trantsizioari eta klima-aldaketari buruzko prestakuntza eta lan-munduarekiko lehen harremana eskaintzea, gazteen enplegua eremu berdean sustatzeko.



empleo, emprendizaje, futuro



Euskal Enplegu Zerbitzua
Servicio Vasco de Empleo

INFORMAZIO GEHIAGO:

ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN LEHEN LANBIDE-ESPERIENTZIA IZATEKO LANBIDEREN 2022KO PROGRAMA

https://www.lanbide.euskadi.eus/general/-/ayuda_subvencion/2021/pex-2022/

NOVIA SALCEDO FUNDAZIOA

<https://www.noviasalcedo.es/>

3.2 UDALSAREA 2030EKO JARDUERETAN ETA LAN-TALDEETAN PARTE HARTZEA

Talde-lana Udalsarea 2030en bereizgarria da, intereseko zenbait gai-eremutan eza-gutza eta metodologia garatzen baititu sareko kideekin batera lankidetzan.

2005ean heldu zitzaion lehenengo aldiz klima-aldaketaren eremuari lan-talde baten bidez eta, orduz geroztik, klima eta energiaren arloko trantsizioko lan-talde batzuei eutsi zaie. Helburua beti da baliabide

komunak eta partekatuak sortzea (hemen jasotako jarduera eta tresna asko sarearen esparruan diseinatu dira), udalerriei eta eskualdeei toki-jasangarritasuneko politikan aurrera egitea ahalbidetzen dietenak.



3.3 GAIKUNTZA ETA MINTEGIAK TEKNIKARIENTZAT

EEEK eta lhobek energia-trantsizioren eta klima-aldaketaren zenbait eremuri buruzko mintegiak eta jardunaldi teknikoak antolatzen dituzte. Hurrengo jardunaldiak klima-aldaketara egokitzeko tresnei, energia fotovoltaiakoari, administrazio publikoen

eraikinetan energia-efizientzia eta berriztagarriak hobetzeko laguntzei eta erosketa eta kontratazio publiko berdearen bidez arloko araudia betetzeko moduari buruzkoak izango dira. Interesatuta bazaude, ziurtatu zure helbide elektronikoa Udalsarea

2030en banaketa-zerrendan dagoela, udalsarea2030@ihobe.eus helbidera idatziz.

4

LAGUNTZA-PROGRAMAK

Beharrezko jarduketak baliabidez hornitzeko finantza-euskarria.

4.1

MOVES III PROGRAMA 2021-2023

Bai ibilgailu elektriko «entxufagarrien» eta M1, N1, L3e, L4e, L5e, L6e eta L7e kategorietako erregai-piladunen eskurapena bai ibilgailu elektrikoen kargatze-azpiegituraren

ezarpena pizteko laguntza-programa. Programa 2023/12/31ra arte edo aurrekontua agortu arte egongo da indarrean.

INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programa-MOVES-III-2021-2023.aspx>

4.2

ENERGIA-ITURRI BERRIZTAGARRIEN BIDEZKO AUTOKONTSUMORAKO ETA BILTEGIRATZERAKO LAGUNTZAK

Hainbat sektoretan autokontsumoa (biltegiratzearekin zein biltegiratzerik gabe) pizteko laguntza-programak, energia-iturri berriztagarriak (hala nola eguzki-energia fotovoltaikoa eta haize-energia) ezarriz.

Etxebizitza-sektorean, jabetza publikoko etxebizitzetan eta hirugarren sektorean

soilik energia berriztagarri termikoen instalazioak (biomasa, aerotermia, geotermia, eguzki-energia termikoa) ezartzeko laguntzak ere barne hartzen ditu.

Programa 2023/12/31ra arte edo aurrekontua agortu arte egongo da indarrean.

INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programa-de-incentivos-ligados-al-autoconsumo-y-al.aspx>

4.3

ENERGIA BERRIZTAGARRI TERMIKOEN INSTALAZIOAK EZARTZEKO PIZGARRIEN PROGRAMA

Industrian, nekazaritzan, abeltzaintzan, zerbitzuetan eta ekonomiaren beste sektore batzuetan, etxebizitza-sektorea barne, eta sektore publikoko bizitegirako ez diren eraikin, establezimendu eta azpiegituretan energia berriztagarri termikoen

instalazioak (biomasa, aerotermita, geotermita, eguzki-energia termikoa) sustatzeko laguntza-programak.

Programa 2023/12/31ra arte edo aurrekontua agortu arte egongo da indarrean.

INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programas-de-incentivos-para-la-implantacion-de-in.aspx>

4.4

PREE 5000. ERRONKA DEMOGRAFIKOKO UDALERRIETAN DAUDEN ERAIKINETARAKO ENERGIA-BIRGAITZEKO LAGUNTZAK

5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerritan, zein gehienez 20.000 biztanle dituzten eta gehienez 5.000 biztanleko entitate singularrez osatuta dauden udalerririk ez-hiritarretan dauden eraikinak, zenbait erabilerrakoa, birgaitzeko laguntza-programa.

Inguratzaile termikoetan energia-efizientzia hobetzeko, berokuntza, aire-girotze, aireztapen eta etxeko ur beroaren instalazio termikoetan energia-efizientzia

hobetzeko eta energia berriztagarriak (eguzki-energia termikoa, geotermita, aerotermita, hidrottermia, beroa berreskuratze sistemak, erregulazioa, kontrola) ezartzeko eta argiztapen-instalazioetan efizientzia hobetzeko laguntzak barne hartzen ditu.

Programa 2023/06/30era arte edo aurrekontua agortu arte egongo da indarrean.

INFORMAZIO GEHIAGO:

[https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Rehabilitacion-energetica-en-edificios-existen-\(1\).aspx](https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Rehabilitacion-energetica-en-edificios-existen-(1).aspx)

4.5 GAUZATU ENERGÍA

Aurrerakin itzulgarrien bidez Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean dauden udaletako instalazio eta eraikin publikoetan mugikortasun jasangarriagoa, energia-kontsumoaren efizientzia eta baliabide

berriztagarrien aprobetxamendua sustatzeko laguntza-programa.

Programa 2030/12/31ra arte edo aurrekontua agortu arte egongo da indarrean.

INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programa-de-anticipos-reintegrables-destinados-a-i.aspx>

4.6 EUSKADIKO TOKI-ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN ENERGIA-JASANGARRITASUNERAKO AZTERLANAK ETA AUDITORETZAK EGITEKO LAGUNTZA-PROGRAMA

Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioen instalazio eta eraikinetan energia aurreztea, energia-efizientzia lortzea eta energia berriztagarriak erabiltzea xede duten ekintzak identifikatzeko eta sustatzeko laguntza-programa.

hiri-mugikortasun jasangarriko planak, bidegarritasun-azterketak eta energia-jasangarritasuneko proiektuak egiteko laguntzak barne hartzen ditu.

Programa 2023/06/30era arte edo aurrekontua agortu arte egongo da indarrean.

INFORMAZIO GEHIAGO:

<https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Programa-de-ayudas-a-la-realizacion-de-estudios-y.aspx>

Eraikinen, energia-instalazioen eta kanpo-argiteria publikoko instalazioen auditoretzak, energia-jasangarritasuneko jarduketa-planak,

4.7 TOKI-GARAPEN JASANGARRIRAKO LAGUNTZA-PROGRAMA

Eusko Jauriaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak urteroko dirulaguntza-lerro bat dauka garapen jasangarria sustatzen duten toki-ekintzetarako. Laguntza-lerro horrek nabarmen laguntzen dio klima-ekintzari eta bost jarduketa-lerroren bitartez antolatzen da: lurzorua, jasangarritasunerako hezkuntza, ekonomia zirkularra, klima-aldaketa eta natura-ondarea.

Laguntza-lerro horren bidez, EAEn klima-aldaketa arintzea (berotegi-efektuko

gasen isuri garbiak murriztea), CO₂ xurgatzea eta klima-aldaketaren efektuak murrizteko egokitzea (plangintza eta ekintzak) xede duten ekintzak laguntzen dira diruz.

Klimari eta energiari buruzko toki-planek lerro horretako dirulaguntzak jasotzen dituzte, baldin eta Udalsarea 2030ek ezarritako metodologiaren arabera egiten badira.

INFORMAZIO GEHIAGO:

https://www.euskadi.eus/agrupacion_servicios/2022/herrijasangarriak-2022/web01-tramite/es/

4.8 TOKI-EKOBERRIKUNTZARAKO LAGUNTZA-PROGRAMA

Proiektu berritzaileetarako laguntza-programak tokiko klima-jasangarritasunaren arloko berrikuntza bultzatzen du, udal eta eskualdeetako ideiei euskarri teknikoa eta ekonomikoa emanez.

Proiektu berritzaile eta frogatzaileei zuzenduta dago eta egikaritze-proiektuei

ematen die lehentasuna (bideragarritasuna ziurtatzeko ezinbestekoak diren aurretiazko faseak barne, proposamen teknikoan behar bezala justifikatuta badaude).

Laguntzak urtero ematen dira eta bi urteko egikaritze-epea daukate.

INFORMAZIO GEHIAGO:

https://www.euskadi.eus/agrupacion_servicios/2022/herrijasangarriak-2022/web01-tramite/es/

4.9

ASTEKLIMA LAGUNTZA-PROGRAMA

Laguntza-programa hau toki-erakundeei zuzenduta dago, ASTEKLIMAREN esparruan jarduerak egin ditzaten, herritarrak klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren aurka egitera animatzeko helburuarekin. Klima-aldaketaren eta energia-trantsizioaren arloan herritarrak sentsibilizatzeko

eta erantzukide bihurtzeko finantzaketa jasotzen duten jardueren tipologia askotarikoa da: hitzaldiak, jardunaldiak, lantegiak, erakusketak, ipuin-kontalariak, zinema, antzerkia, bideo, argazki eta bestelakoen lehiaketak, bisitak, irtenaldiak, martxak, etab.

INFORMAZIO GEHIAGO:

ASTEKLIMA

https://www.euskadi.eus/agrupacion_servicios/2022/herrijasangarriak-2022/web01-tramite/es/

5

PROIEKZIOA

Euskal gizartearentzat eredugarriak diren eta udal eta eskualdeko konpromisoaren balioa azpimarratzen duten jarduketak zabaltzea.

Laguntza-lerro honetan udal-konpromisoari eta tokiko eta eskualdeko erakundeek egindako ahaleginari eta lanari, jardueren eta proiektuen zabalkundeari eta herritarrei eta gizarte-eragileei zuzendutako eredugarritasunari balioa ematen dieten zerbitzuak biltzen dira.

5.1 JARDUNBIDE EGOKIEN ZABALKUNDEA

Udalsarea 2030 toki-jasangarritasunaren arloko jardunbide egokien erreferentzia-ingurunea da. Sarea osatzen duten udalerriek gauzatutako jardunbide egokiek askotariko gaiak hartzen dituzte, sareko topagunee-tan (lan-taldeak, batzorde teknikoa, lantegiak...) partekatzen eta trukatzeko dira eta www.udalsarea2030.eus webgunean jasotzen dira (Tokiko Ekintza atalean).

Gainera, jardunbide horiei balioa eta zabalkundea emateko, hainbat formatu (albisteak, bideoak, argitalpenak, jardunaldiak) eta kanal (Udalsarea 2030en webgunea, lheren webgunea, sare sozialak...) erabiltzen dira.

Toki-ekintza jasagarriaren komunikazioak aukera ematen du Euskadi eta bertako uda-

lerriak eta eskualdeak behar bezala posizionatzeko nazioko eta Europako esparruan klima eta energiaren arloko trantsizioari dagokionez. Horregatik, jardunbide egokiak zabaltzeko, beste lurralde batzuetan eragina duten plataformak erabiltzen dira: AdapteCCa, Climate adapt eta ICLEI.

5.2 AITORTZA PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, EEE-ren eta Ihoberen bidez, Euskadiko udalerriek toki-eremutik energia eta klimaren arloko trantsizioari heltzean egindako lana aintzatesteko eta Alkateen Klima eta Energia Itunaren nazioarteko ekimenari atxikitako udalerriek egindako apustua aitortzeko ekitaldiak antolatzen ditu.



5.3 ASTEKLIMA

ASTEKLIMA Klimaren eta Energiaren Astea da, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak EEE eta Ihoberen bidez sustatutako ekintza, eta herritarrak energia eta klimaren arloko ezinbesteko trantsizioaz kontzientziaztea eta horren alde mobilizatzea du xede.

Aste horretan, herritarrek eta eragile sozialek eta ekonomikoek aukera dute toki-administrazioak Euskadiko lurralde osoan antolatutako jarduera eta ekitaldi ugarietan parte hartzeko.




EUSKADI KLIMA-ALDAKETAREN AURKA.
Ekintza oro, txikia bada ere, garrantzitsua da.

INFORMAZIO GEHIAGO:

ASTEKLIMA

www.asteklima.eus



**EUSKADIKO
ITUN
BERDEA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



ihobe
ingurumen hobekuntza
mejora ambiental



**ENERGIAREN
EUSKAL ERAKUNDEA
ENTE VASCO
DE LA ENERGÍA**